

Euskararen normalizazioa eta erabilera administrazioan:

Ekimenak eta emaitzak

Ane Etxabe Arruti

“ Esparru geografiko batean edozein hizkuntzaren osasunaren analisia egiteko neurgailu ona izaten da arlo ofizialetan duen normalizazio-maila. Eremu soziolinguistiko baten errealitatea ezin da guztiz eremu ofizialetatik datorren aintzatespenetik ondorioztatu, noski, baina behinik behin egoera orokorraren arrastoak emango dizkigu. Lan honetan hori izango dugu xede; alegia, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazioak (bere forma anitzetan) euskarari zein trataera emango dion aztertzea, barne nahiz kanpo harremanetan, eta honetarako lege-esparrutik hasita, ekimen zehatzetarainoko bidaia egingo dugu, ibilbide horretako lorpen eta ajeiei erreparatuz. ”

0. Sarrera: Administrazioa(ri) euskaraz

Euskara eta administrazioaren arteko harremanak aztertzean, esan gabe doa oraindik ere euskarak bigarren hizkuntza bezala funtzionatzen duela administrazioan, bai barne harremanetan eta bai gainontzeko hiritarrekin dituen harremanetan ere. Gizarteko beste arlo askotan normalizaziorako eman diren aurrera pausuek nekezagoak dirudite dagokigun eremu honetan. Baieztapen honi, ordea, ñabardura ugari erants dakizkioke; horietako batzuk azaleratzen saiatuko gara hurrengo lerroetan.

Aztergai gisa **Euskal Autonomia Erkidegoko** egoera izango dugu. Hau da, EAE-ren esparrura mugatuko dira hemen egingo ditugun oharra, eta ez dugu kontuan hartuko euskarak Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean duen egoera administratiboa; ez interes gutxiago duelako, baizik eta funtsezko araudiaren homogeneotasun bat bilatu nahi delako eta azterketa bera ere samurtu nahi izan delako.

Kontuak kontu, hasieratik bertatik aitortu behar dugu gai honen **konplexutasuna**. Izan ere, administrazioaz bere horretan hitz egin ohi badugu ere, jakina da maila eta izaera oso ezberdineko organoak biltzen direla honen barruan, eta noski, hizkuntzari emango zaion tratamendua ez da berdina izango horietan guztietan, nahiz eta guztiek, funtsean, araudi beretik edan. Beraz, Administrazio amaraun baten azterketan sartuko gara, lurralde eta organoaren arabera errealitate ezberdineko ente ugartan murgilduko. Gainera, ezin izango dugu administrazio bakoitza bere inguruabar soziolinguistiko partikularretatik bakartu, eta horrek ere analisiari zailtasunak ekarriko dizkio.

Nolanahi ere, administrazioari, noski, **pertsonak** ematen diote bizia. Beraz, hurrengo pausua izan beharko luke aztertzea zer hizkuntza-maila duten bertan lanean dihardutenek eta zein diren legez ezarritako eskakizunak; hau da, kontuan hartu beharko da zer jakintza maila duten eta izan behar luketen langile publikoek. Izan ere, datu hauetatik ondorio esangarriak atera litezke euskararen normalizazio-egoerari buruz.

1. Abiapuntua: legezko egoera.

Askotan ez da erraza izaten araudia osatzen duen piramide nahasian kokatzea. Administrazioan bizi den egoera konprenitzeko ordea, ezinbesteko zaigu alde batetik gaur egun euskarak duen eraentza juridikoa marrazten duen araudia aztertzea eta bestetik araudi horrek markatutako ildoetatik gobernutik egindako politika eta ekimen zehatzak arakatzea. Has gaitezen, beraz, oinarritik.

1.1. Printzipio orokorren iturburuak

Abiapuntua **Espainiako Konstituzioa** izango da. 3. artikulua manamenduz Espainiako hizkuntza ofiziala Gaztelania da, eta bertan bizi den orok jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea du. Gainera, Autonomia Erkidego bakoitzak, hizkuntza ofiziala izango du, kultur ondare gisa aitortuta. Zer esanahi hartzen du administrazioarentzat hizkuntza bat ofizial izateak? **Konstituzio Auzitegiaren 1986. urteko epai¹** baten hitzetan, hizkuntza bat ofiziala da, bizi duen errealitatea eta fenomeno sozial gisa alde batera utziz, botere publikoek beraien arteko eta subjektu pribatuekiko komunikaziorako ohiko bitarteko gisa onartu dutenean, erabateko balio eta eragin juridikoak izango dituelarik. Beraz, hizkuntza bati ofizialtasun estatusa ematean, erabateko eraginkortasunez jantziko du Estatuak harreman publikoetan. Beraz praktikan, gure solaskideak administrazioarekin edonolako lotura izanda ere, hizkuntza ofizialetan erantzuna jasotzeko eskubidea izango genuke.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak euskara, Erkidegoko berezko hizkuntzat aitortu eta ofizial gisa aldarrikatzen du, bien (bai gaztelera eta bai euskararen) ezagutza eta erabiltzeko eskubidea azpimarratuz. Administrazioari dagokionez, bien ezagutza segurtatzeko baliabideak jarriko direla dio, EAE-ren menpeko diren erakundeetan bederen.

Beraz, administrazioan eta administrazioarekiko harremanetan euskararen erabilera bermatzeko legezko konpromisorik egon badago, baina hau gauzatu dadin printzipio horiek eta borondate politikoak eskutik joan behar dute arau eta ekimen konkrituagoak finkatuz.

1.2. Hizkuntza zuzenbidea

Lege-eremua hizkuntzaren alorrera kotatuz eta araudi horretan gaur dagokigun gaiaren ingurukoak zehaztuz, honakoak dira euskararen administrazioarekiko egoeraren funtsa diren legeak.

10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Arautzekoak pausu garrantzitsu bat eman zuen hizkuntza zuzenbidearen alorrean. Euskararen inguruko lehen lege osoa izan zen, berezko hizkuntza izaera aldarrikatu baitzion. Bertan, herritarrei Erkidegoan kokatutako edozein sail edo erakunde publikorekin, hitzez nahiz idatzizko harremanak euskaraz edo gazteleraz izateko eskubidea aitortzen zen.² Eta lege honek bai, hizkuntza-politikako ekimen baliagarriak garatzeko bidea zabaldu zuen.

Funtzio Publikoaren Legearekin³, 1989. urtean, administrazioaren agindupeko pertsonengan euskararen normalizaziorako saltoa eman zen, hau da, administrazioan lanean diharduenari euskararen gutxieneko jakintza maila

1. [EKA 82/1986 sententzia.](#)

2. [10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Arautzekoa, 6. atala](#)

3. [Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea, bereziki V. Atala](#)

beharrezko. Ondoren, **224/1989 Dekretuaren** bitartez eskakizun horiek zehaztu ziren, eta gaurko hizkuntza-eskakizunak **86/1997 Dekretuak**⁴ zehazten ditu. Azken dekretu honek pisu berezia izan du, alde batetik ondoren azalduko ditugun Plangintzaldietarako neurri osagarriak erantsi baitzituen, eta bestetik, EAE-ko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko emandako Dekretuen xedapenak argitu eta egokitzen dituelako, ordurartekoak testu bakarrean bilduz.

2. Legearen garapenerako ekimenak

Azken hogeita bost urteotako esfortzuak ekimen ezberdinetan bildu dira aginte publikoaren aldetik. Euskararen normalizazioan garrantzia izan dutenetatik batzuk aztertuko ditugu, zeresan berezia dutela iruditu baitzaigu.

2.1. Hizkuntza Eskakizunen garrantzia: *Administrazioko langileak euskalduntzeko lanabes*

Aipatu dugun moduan, 1989ko Funtzio Publikoaren Legeak, berrikuntza handia sartu zuen dagokigun gaiaren norakoan⁵. Administrazioko lanpostuetako bakoitzari bere hizkuntz eskakizuna esleitu zion, hau da, aurrerantzean hizkuntz eskakizunen bitartez finkatuko zen lanpostu hori betetzeko euskararen ezagutza eta gaitasun maila. Mandatu honek ez zituen berau indarrean sartu aurretik administrazioan lanean zihardutenak baldintzatuko (gaur egun oraindik honen kutsuak pairatzen ditugu) baina postu berri orotarako euskararen ezagutza jakin bat egiaztatu beharra bazen zerbait.

Euskararen ezagutza aldetik egoera hobetu dela diogun arren, zer uzta eman dute azken bi hamarkada hauek? Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak emandako datuen arabera, hizkuntza eskakizunen betetze-maila %55,5koa izan da. Datu honekin Hizkuntza Eskakizunen politikak arrakasta apala izan duela badirudi ere, kontaktetan lanpostu hutsak eta salbuetsitako langileak ere barneratu dira, eta hauek eragin dute betetze-maila altuagoa ez izatea.

2.2. Plangintzaldiak⁶: *Herri administrazioetan euskara normalizatzeko ahaleginak*

Noski, pertsonalak hizkuntza gaitasun bat izatea ezinbesteko izango da normalizazioaren biderako, baina helburuak eta lan dinamikak zehaztu beharra dago, eta horretara etorri dira azken urteotan gobernu ezberdinek euskararen inguruko politiken norakoak zehazteko Plangintzaldiak. Bost urteetako epealdian bakoitza, egoeraren analisi eta helburuen finkatzean oinarritzen dira, honetarako baliabideak zehaztuz. Dekretu bidez, garai bakoitzeko euskararen egoera orokorraren **azterketa egin** eta **epe ertain eta luzera hartu beharreko erabaki eta lanak zehazten dira bakoitzean, arloka**. Gaur, laugarren Plangintzaldian bete-betea sartuta gaude, 2008. urtetik 2012. urtera bitartekoa.

Lehen Plangintzalditik erdietsi beharreko helburuak aldatzen joan dira. Hala, lehen bi Plangintzaldietan indar hauek ezagutzaren inguruan sakontzen zuten. Gaur egun ordea, ezagutzatik haratago euskara erabiltzea lortu nahi da, malgutasunez baina etengabe. Azken Plangintzaldian, esaterako, herri-administrazioetan, egitasmo berria dinamizatzeko, ikastaroak eta trebakuntza-saioak egongo direla agindu da.

4 **86/1997 Dekretuaren testua.**

5. **Zinez, 250/1986 Dekretuak sortu zituen hizkuntza-eskakizunak, baina Lege indarreko arau honen bitartez derrigortasuna ezarri zen.**

6. **Plangintzaldi bakoitzaren testua, [hemen](#).**

2.3. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia⁷: Normalizaziorako egitasmo nagusia

1998ko ekainaren 24ko onetsia, asmo handiko plana izan izen, hurrengo hamar urteetako erronkei erantzuteko irizpideak finkatu baitzituen. Helburu gisa, **euskaraz bizi nahi duten** herritarrei horretarako aukerak bermatzeko beharrezko hizkuntza-politikako neurriak erabaki eta bultzatzea zen, maila pertsonal, sozial eta ofizialean. **Hiru lan ildo** ezartzen ditu Planak; Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak etenik izan ez dezan lortzea, batetik. Bestetik berriz, euskararen erabilera gizarteko esparru guztietara zabaltzea (Administrazioa, beraz, barne) Azkenik, euskara bera komunikazio-tresna den aldetik lantzea eta aberastea.

Administrazioari dagokionez, euskarak arlo ofizialean dituen **gabeziak inolako konplexurik gabe aitortu** zituen; Lanerako tresneria eta materialak gatzeleraz egotea, oinarrizko testuak ez euskaratzea edota softwarea atzerriko hizkuntzen domeinu zeharkaezina izatea. Zuzenbide eta Ekonomian lizentziatuak euskalduntzeari garrantzi berezia aitortzen da, etorkizuneko administrazioiko goi-mailako teknikarien harrobi izango direnez.

Euskara administrazioaren barne nahiz kanpo harremanetan lan hizkuntza izan dadin plangintza zehatzak martxan jartzen hasi zen Plan Nagusia, eta gaur egun oraindik ere horretan dabil; EBPNren normalizaziorako lan ildoak jarraitzen dituzten udalerrriak 2010. urtean, EAEko udalerrien %73a osatzen baitzuten.

2.4. Elebide⁸: Hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzua

Elebide izenarekin jarri zen martxan 2008. urtean Eusko Jaurlaritzatik herritarrei hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzua. Xede nagusia hizkuntza eskubideen betetzearen gaineko kontrola egitea du, baina baita sentikortasun kanpainak sustatu eta herritarren iradokizunak jasotzea ere. Finean, bi hizkuntzen arteko oreka bermatzea izango du helburu.

Batez ere kexen arloan izan du indarra Elebidek. Ideia bat egiteko, Elebidek izapidetatuko gertakarien %94-a herritarren kexuak izan dira (2009ko datuen⁹ arabera). Hauetatik, gainera, %99 euskararen inguruko arau edo eskubide baten ezbetetzearen ingurukoak dira. Kexu hauetan Administrazio Publikoak pisu handia izan du, izan ere hauen hiru herenak arlo publikoko erakunde batek burututako ezbetetzeei baitagozkie. Ezbairik gabe datu esanguratsuak ditugu hauek, eta oraindik ere administrazioan euskararen normalizaziorako urrats asko falta direna adierazten dute.

⁷ *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren testua*

⁸ *Elebide Zerbitzua sortzen duen [150/2008 Dekretua](#)*

⁹ *Elebide Zerbitzuaren 2009. urteko [memoria](#)*

3.3. Amaierako gogoeta

Administrazioa eta euskararen arteko ezinezko amodioa samurtuz doa. Gure historia hurbilean, 1982ko Euskararen Legearekin, euskararen erabileran nagiak atera eta baliozko tresna juridiko-administratibo izateko atea ireki zen. Handik aurrerako ekimenak ikusi dugun bezala oparoak izan dira, baina halere administrazioan normalizazioa beti beste arloen atzetik doa. Ahalegin handiagoak egitea beharrezko al da? Zalantzarik gabe, bai. Alde batetik, euskararen duintasunaren kariaz, eta bestetik, hizkuntzak bizirauteko eremu publiko hauetan erabat eta baliozkotasun osoz integratu behar duelako.

Izan ere, azterketa hau egin ostean ohartu gara, sumatu litekeen arren, Erkidegoan ez dugula euskara bere balio juridiko osoarekin administrazioan txertatzeko legerik, han-hemenkako dekretu eta arauak soilik.

Euskal hiztunen artean oso pertzepzio zabaldua da administrazioaren gaztelerarako joera; bestela ezin, historikoki euskarari toki hori hartzea galarazi bazaio. Hain dugu barneratua inertzia hori ezen urteetan natural jokatu duela herritarrak administrazioetik euskarazko erantzunik ez jasotzean. Badirudi halere kontzientzia hori ere pixkanaka aldatzen doala.

Etorkizuneko hausnarketak, gure ustetan, administrazioan euskararen erabilera erreala, eta are gehiago, naturala izan dadin, egoera soziolinguistikoak kontuan izan baina erabilera bultzatzeko neurriak hartzen dituen lege oso baten garapena litzateke.

